

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko abendua

Aurkibidea

1. Kanpo merkataritza
2. Inflazioa
3. Enplegua ingurunean
4. Enpresarien konfiantza
5. Sentimendu ekonomikoa
6. Batzordearen aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Energiaz bestelako esportazioek marka berria ezarri dute.

Alemania eta Frantzia dira EAEko produktuen atzerriko helmuga nagusiak

2. Inflazioa 2008ko uztailetik izan duen mailarik altuenera igo da.

Energiaren garestitzeak KPIa % 5,0ra eraman du.

3. Europar Batasuneko enplegua maximoetan dago.

Hiruhileko gutxi batzuetan pandemiak galdutako enplegu guztia berreskuratu da.

4. Europako jardueraren hazkundera bizkortu egin zen azaroan.

Euroaren eremuko PMI indize konposatua 55,8 puntura igo da

5. Aldaketa gutxi Europako sentimendu ekonomikoan.

Oro har, familien konfiantza okertu dela hautematen da.

6. Kontrako haizeek ekonomiaren hedapena mehatxatzen dute.

Pandemiaren bilakaerak eta eskaintzaren murrizketek hazkundera baldintzatuko dute.

7. Hilabeteko laburpena.

Hazkunde bizia, baina zalantza askorekin.

Energiaz bestelako esportazioek marka berria ezarri dute


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Urte arteko aldakuntza tasa

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.

IRAILA

%15,9



Sendotu egin da EAEko kanpo merkataritzaren susperraldia, Eustatek argitaratu dituen azken datuek erakusten duten bezala. Horietan jasota geratu denez, irailean atzerrira egindako salmentak guztira %19,5 hazi ziren, Europar Batasunekoek (%12,2), Eurogunekoek (%13,0), Erresuma Batukoek (%11,2) eta baita Frantziakoek (%10,5), Italiakoek (%10,3) eta Alemaniakoek ere (%7,1) izandako hazkundea baino gehiago. Ez-energetikoek ere bilakaera ona izan zuten, %15,9ko igoera nabarmenarekin.

Izan ere, EAEk atzerrira bidalitako energiaz bestelako esportazioek errekor berria lortu zuten urtarriletik irailera bitartean, 17.709 milioi euro baino gehiago saldu baitziren, 2020an lortutakoa baino %23,0 gehiago eta 2019an lortutakoa baino %1,9 gehiago, azken hori orain arte erregistratutako kopururik handiena baitzen. Esportazio totalak ere nabarmen hazi ziren (%23,3), eta hirugarren erregistrorik handiena lortu zuten, 2018an eta 2019an egindako salmenten atzetik.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Milioi euro

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.

URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

17.709,3



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Herrialdea	%
Alemania	%16,4
Frantzia	%16,0
Erresuma Batua	%6,8
AEB	%5,9
Belgika	%5,3
Italia	%5,2
Herbehereak	%5,0
Portugal	%4,3
Txina	%2,7

EB27 izan zen EAEko esportazioen helmuga nagusia eta esportatutako guztizkoaren %66,3 bereganatu zuen. Alemanian saldu ziren gehien (%16,4) eta gero Frantzian (%16,0) eta Italian (%5,2). Euroaren eremutik kanpo, Erresuma Batura (%6,8) eta AEBetara (%5,9) bideratutako esportazioak nabarmendu ziren. Bost herrialde horietan esportatutako guztizkoaren %50,3 saltzen da.

Esportazio adar nagusiei dagokienez, ekipamendurako ondasunek (%13,9ko hazkundea) eta metal arruntek eta horien

ESPORTAZIOEN BANAKETA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%45,1
Makinak eta aparatuak	%16,9
Garraio materiala	%25,4
Ohiko metalak eta manuf.	%23,8
Plastikoa eta kautxua	%7,3
Nekazaritzako produktuak	%5,9
Produktu mine.eta energetikoak	%5,7
Produktu kimikoak	%3,3
Papera	%2,7

manufakturrek (%36,8ko gorakada) esportazioen bilakaera bultzatu zuten, haiek bakarrik metatzen baitute esportatutako guztizkoaren %68,9. Gainerako epigrafeek ere bilakaera positiboa izan zuten.

Energiaz bestelako inportazioek ere beste maximo bat ezarri zuten eta 11.900 milioi euroetara hurbildu ziren. Horren guztiaren ondorioz, urtarritetik irailera bitarteko saldo ez-energetikoa superabitarioa izan zen, 5.853 milioi eurokoa, eta horren ondorioz estaldura tasa %149,4 izan zen.

INPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDO EZ ENERGETIKOAK. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Milioi euro




INFLAZIOA

Inflazioa 2008ko uztailetik izan duen mailarik altuenera igo da

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Energiaren garestitzeak kontsumo prezioen igoera %5,0ra eraman zuen, beraz, KPIa irailean baino 1,1 puntu altuagoa izan zen. Hain zuzen ere, elektrizitatea, gasolioa eta gasa bezalako faktoreengatik igo dira prezioak, nahiz eta azken hori igoera moteltzen ari delako seinaleak erakusten hasi den, urrian maximora iritsi ostean.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	5,0	5,0
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	1,4	1,0
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,5	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	1,6	0,3
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	1,2	0,5
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	20,4	4,0
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	1,0	0,1
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	39,1	3,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak



Aldi berean, petrolioaren prezioek, koronabirusaren hedapenari lotutako mugikortasunaren etorkizuneko murrizketek kontsumoa oztopa dezaketen arren, altuak izaten jarraitzen dute, gasaren eskasiak beste erregai batzuen eskaria handitu baitu. Egia da energiaren garestitze historikoa dela inflazioaren igoeraren erantzule nagusia, baina igoera hori areagotu egin zen kontsumoaren gorakadaren, hornidura kateen arazoaren eta langile eta txip eskasiaren ondori-

oz. Elektrizitatearen goranzko prezio horiek erosketa saskia osatzen duten talde guztietara iritsi ziren. Hala, etxebizitzaz gain, zeinak bere serie historiko osoko erregistrorik handiena markatu baitzuen, %20,9ko tasarekin, garraio taldeak izan ziren, erregaien prezioetan izan zen igoeraren ondorioz, eta aisialdi eta kultura taldeak, pakete turistikoaren prezioen susperraldiaren ondorioz, gehien lagundu zutenak inflazioak gora egiten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	5,0	5,4	4,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,3	1,7	1,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	1,1	2,5
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,1	0,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	20,9	20,5	8,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,3	1,2	2,3
Osasuna	1,0	0,9	0,8
Garraioa	11,8	12,3	10,6
Komunikazioak	-0,4	-0,5	1,0
Aisia eta kultura	1,7	1,5	1,6
Hezkuntza	1,8	1,1	-1,0
Jatetxeak eta hotelak	1,0	2,0	2,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	2,0	1,0	2,0

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.


Europar Batasuneko enplegua maximoetan dago

ENPLEGUAREN BILAKAERA. EB 27

Milioi lagun

3. HIRUHILEKOA

211,3



Historikoki, atzeraldiekin batera langabeziak gora egin ohi du, eta, batzuetan, urteak behar izan dira galdutako lanpostuak berreskuratzeko. Hala gertatu zen 2008ko krisialdian, krisi sistemiko bat izan zena, finantza sisteman lehenik piztu zena; 2020an, berriz, Pandemia Handia, krisi ziklikoa izan da, ekonomiaren batbateko geldialdiak eragin zuena osasun larrialdiari aurre egiteko. Hori dela eta, konfinamenduak amaitu eta kontsumoarekin lotutako jar-

dueren murrizketak lasaitu ondoren, Europar Batasuneko lan merkatuak azkar suspertzen hasi ziren.


Izan ere, Eurostatek argitaratutako azken datuen arabera, hiruhileko gutxi batzuetan pandemiak galdutako ia enplegu guztia berreskuratu da eta, kasu batzuetan, maila hori gainditu egin da, enplegatutako pertsonen maximo berri bat erregistratuz.

ENPLEGUAREN BILAKAERA. EUROGUNEA

Milioi lagun


3. HIRUHILEKOA

161,8



ENPLEGUAREN BILAKAERA. ALEMANIA


Miloi lagun



Hain zuzen ere, Europar Batasunak 211,3 milioi enplegu zenbatu zituen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, eta datu hori maximo historiko berri bat da, pandemian galdutako enplegu guztiak berreskuratutzat ematen dituen. Are gehiago, aurtengo bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean ia 3,2 milioi lanpostu berreskuratu ziren. Eurogunearen kasuan, bilakera antzekoa izan zen, baina ez hain dinamiko. Urte honetako hirugarren laurdenaren amaieran 161,8 milioi langile zeuden, eta lan-

ENPLEGUAREN BILAKAERA. ESPAINIA


Miloi lagun



gile kopuru hori osasun krisiaren aurreko erregistroaren gainetik dago, baina oraindik 2019ko hirugarren hiruhilekoan lortutako maximoaren zertxobait azpitik dago. Herrialde batzuk, hala nola Alemania eta Espainia, egoera horretan egongo lirateke, enpleguaren susperraldi handiarekin, baina oraindik ere maximoen azpitik. Austriar eta Poloniar, ordea, lan merkatua inoizko enplegu maila gorenean kokatu da.


ENPLEGUAREN BILAKAERA. AUSTRIA

Miloi lagun



ENPLEGUAREN BILAKAERA. POLONIA

Miloi lagun



Iturria: Eurostat.

Europako jardueraren hazkundera bizkortu egin zen azaroan

Azaroan, euroaren eremuko PMI konposatua zertxobait igo zen aurreko hileko balioarekin alderatuta, 55,8ra iritsi arte. Zenbaki horrek jardura ekonomikoaren hedapen handia adierazten du. Hala eta guztiz ere, adierazlearen bilakera pentsarazten du laugarren hiruhilekoko dinamismoa hirugarrenekoa baino txikiagoa izango dela. Alderdi positibo gisa, nabarmentzekoa da enplegu sorreraren erritmoa azken hogeita bat urteetako biziena dela, eskaera handi-


ak bultzatuta. Aitzitik, etorkizuneko aurreikuspenek okerrera egin dute pandemiaren eta hornidura arazoaren ondorioz.

Bi sektore nagusiek hobetu egin zituzten beren datuak, baina bereziki zerbitzuek (56,6), bi puntu egin baitzuten gora. Bestalde, manufakturak (53,8) puntu erdi igo ziren azaroan. Bi kasuetan, eskaera berriek gora egin zuten, nahiz eta erritmoa udako hiletakoa baino nabarmen txikiagoa izan.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021EKO AZAROA


55,8




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdekako azterketan, Alemanian eta Frantzian jarduera ekonomikoak hobera egin zuela azpimarratu behar da. Bereziki handia da azken herrialde horretako hedapena, zerbitzuek bizi duten une onari esker. Bestalde, Alemanian manufakturen ekoizpena ahula da, nahiz eta sektore horretan eta zerbitzuetan hobekuntza txiki bat izan den urriko datuekin alderatuta.

Hornidura arazoak dira berriro ere kezka nagusia. Hornidura faltaren beldurak izakinak aurrekaririk gabeko mailan pilotzera eraman ditu enpresak. Azkenik, enpleguak gora egin duen arren, egiteke dauden eskaerek gora egiten jarraitzen dute.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit



EKONOMIAREN SENTIMENDUA

Aldaketa gutxi Europako sentimendu ekonomikoan


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

AZAROKO DATUA

117,5

Sentimendu ekonomikoaren azaroko datuek erakusten dute egonkortasuna dagoela, bai euroaren eremuan, bai Europar Batasunean. Bi kasuetan, azaroan lortu den maila serie historikoaren maximotik, aurtengo uztailan lortu baitzen, oso gertu mantentzen da. Zehatzago adierazita, eurogunea 117,5 puntutan kokatu zen azaroan, eta Europar Batasuna, berriz, 116,5 puntutan.

Osagaien araberako analisiak maximotik oso hurbil kokatzen du industria, osagai jakin batzuk lortzeko zailtasunak egon arren eta pro-




duktu energetikoak garestitu badira ere. Beste aldetik, zerbitzuek baikortasun handia erakutsi dute eta eraikuntza, berriz, dinamismo handiko egoeran dago. Nota negatibo bakarra kontsumitzailearen konfiantzak eskaini du, hilabete bakar batean bi puntu egin baitu okerrera.

Enpleguari buruzko igurikimenei dagokienez, hobekuntza nabarmena nabaritu da, eta bi eremu horietako indizeak baikortasun handiko posizioan daude, pandemia baino lehen erregistratutako balioen gainetik.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

AZAROKO DATUA

116,5




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeka, bilakaera kontrajarriak erakutsi dituzte Alemaniako sentimenduaren moteltzeak eta Frantzia jasotako gorakadak. Lehenengo kasuan, indizea ia bi puntu jaitsi da, nahiz eta industriak oso posizio onean jarraitzen duen. Zerbitzuek eta kontsumitzaileek, ordea, okerrera egin dute. Frantziari dagokionez, herrialde honek hiru puntuko igoera eskuratu du eta uztaleko mailara hurbildu da. Indizearen bost osagaiek hobera egin dute urriko datuekin alderatuta, batez ere zerbitzuek eta txikizkako merkataritzak.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italiak ere goranzko bilakaera erakutsi du, baina kasu horretan puntu bat ingurukoa baino ez da. Kontsumitzailearen konfiantzak soilik egin du okerrera urriaren aldean, eta enpleguari buruzko itxaropenak, berriz, nabarmen hobetu dira. Azkenik, Espainiak baikortasun pixka bat galdu du eta bere indizeak puntu bat baino zertxobait gehiago egin du atzera. Atzerapauso hori ia osagai guztietan gertatu da, zerbitzuetan izan ezik, horiek indarrez igo baitira eta hogeitazko mailarik gorenean kokatu baitira.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europar Batzordea.

EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Kontrako haizeek ekonomiaren hedapena mehatxatzen dute

EUOPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Udazkeneko txostenean Europako Batzordeak argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren eta eurogunearen hazkundera %5,0 izango da 2021ean eta %4,3, berriz, 2022an. Hala ere, hazkunde erritmoa desberdina izango da herrialdeen eta sektore ekonomikoen artean.


2021ean Europar Batasuneko ekonomiak Covid-19aren hedapena saihesteko noizbehinkako konfinamenduei aurre egin behar izango die. Bestalde, eskaintzaren aldetik, hornidura arazoak oztopo handia dira susperraldi ekonomikoaren iraunkortasunerako. Energiare prezioen goranzko joerak ere moteldu egingo du ekonomiaren bizitasuna.

BPG. EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	-5,9	5,0	4,3	+0,8	-0,1
Eurogunea	-6,4	5,0	4,3	+0,7	-0,1
Alemania	-4,6	2,7	4,6	-0,7	-0,5
Belgika	-5,7	6,0	2,6	+1,5	-1,1
Espania	-10,8	4,6	5,5	-1,3	-1,3
Frantzia	-7,9	6,5	3,8	+0,8	-0,4
Italia	-8,9	6,2	4,3	+2,0	-0,1
Herbehereak	-3,8	4,0	3,3	+1,7	-0,3
Portugal	-8,4	4,5	5,3	+0,6	+0,2
Irlanda	5,9	14,6	5,1	+10,0	+0,1
Grezia	-9,0	7,1	5,2	+3,0	-0,8
Austria	-6,7	4,4	4,9	+1,0	+0,6


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2022rako kontrako haize horiek desagertzea espero da, eta hazkunde ekonomikoa sendoa izatea aurreikusten da, lan merkatuaren hobekuntzaren, aurrezki tasa handien, finantzaketa baldintza egokien eta susperraldirako eta erresilientziarako mekanismoaren ondorioz.

Ziurgabetasuna handia da oraindik Europar Batasunean. Arrisku nagusiak pandemiaren bilakaeran eta eskaintza murrizketen eraginean oinarritzen dira.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	7,1	7,1	6,7	-0,5	-0,3
Eurogunea	7,9	7,9	7,5	-0,5	-0,3
Alemania	3,8	3,6	3,4	-0,5	=
Belgika	5,6	6,2	6,3	-0,5	-0,2
Espainia	15,5	15,2	14,3	-0,5	-0,1
Frantzia	8,0	8,0	8,0	-0,9	-0,7
Italia	9,2	9,8	9,3	-0,4	-0,6
Herbehereak	3,8	3,5	3,6	-0,8	-0,8
Portugal	6,9	6,7	6,5	-0,1	=
Irlanda	5,7	7,5	6,8	-3,2	-1,3
Grezia	16,3	15,3	15,0	-1,0	-1,1
Austria	5,4	5,0	4,6	=	-0,2

Iturria: Europar Batzordea.





Hazkunde bizia, baina zalantza askorekin

Azaroan Glasgowko goi bilera izan da protagonista. Parisen helburua zen tenperatura bi gradutik gorakoa ez izatea, eta, ahal zela, 1,5 gradukoa izatea, industriaurreko garaian zegoenaren aldean. Azken adierazpena ez da denen gustukoa izan, batez ere komunitate zientifikoarena, baina **urrats batzuk eman dira eta etorkizunerako konpromiso batzuk sinatu dira.**

Jarduera ekonomikoari dagokionez, Europako Batzordearen aurreikuspenek zapore gazi-gozoa utzi dute, *EBko ekonomia aurreikusi baino azkarrago berreskuratzen ari dela* aitortuta eta pandemiaren bilakaerak eta hornidurarik ezak etorkizuneko hazkunde erritmoa baldintzatuko dutela ohartarazita. Orain, **Europar Batasunerako aurreikuspenak % 5,0koak dira urte honetarako**, aurreko aurreikuspenarekiko goranzko zuzenketa garrantzitsuarekin, **eta % 4,3koak, berriz, 2022rako**, kasu honetan aurreko txostenean jasotako tasa baino hamarren bat gutxiago.

Europar ere, nabarmendu behar da Euroguneko PMI konposatuak susperraldi arina izan duela, 55,8ra igo baita, aurreko hilabeteetako moteltzeari amaiera emanez. Hala eta guztiz ere, eta abenduko datua ezagutu ezean, badirudi laugarren hiruhilekoko hazkundeak ez dela hirugarrenekoa bezain dinamikoa izango. **Azaroko hobekuntza zerbitzuetan antzeman da bereziki**, bi puntu igo baitira, 56,6ra arte. Manufakturak, berriz, puntu erdi igo dira (53,8), nahiz eta botila lepoak, hornidura falta eta prezioen igoera gertatu diren. Garrantzitsua da adieraztea eskaera berrien sarrerak gora egiten duela eta eskari handi horri aurre egiteko enplegua gero eta erritmo handiagoan hazten ari dela. Hala ere, baikortasuna hoztu egin da, kutsatze olatu berriak eta hornikuntza arazoak direla eta.

Prezioen igoera garrantzitsua da EAEko ekonomian ere. Urriko KPIa %5,0ra igo da, nahiz eta azpiko inflazioa tasa neurritsuan dagoen (%1,4). **Energia alorreko prezioen garestitzea da igoera horren arrazoi nagusia**, eta zenbait kasutan neurritasuna erakusten hasi badira ere, hilabete batzuk beharko dira hori kontsumoko prezioetara pasatu arte. Beste elementu batzuek, pakete turistikoek adibidez, inflazioaren igoeran parte hartu dute, mugikortasunaren murrizketak ezabatzen joan direnean.

Azkenik, esan behar da **EAEtik atzerrira bidalitako esportazioak pandemiaren aurreko tonua berreskuratzen ari direla**. Hala, irailean %19,5 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta. Halaber, urtariletik irailera bitartean metatutakoak errekorra ezarri du esportazio ez-energetikoen serie historikoan, 17.709 milioi euro salduta.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,2	-9,9	-8,1	-8,1	-2,9	18,6	3,8
Barneko azken kontsumoa	2,0	-8,9	-7,6	-7,0	-2,5	18,1	—
Familien kontsumoa	1,7	-12,4	-10,3	-10,6	-3,7	22,6	—
Administrazioaren kontsumoa	3,1	3,8	2,8	6,5	1,6	5,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,7	-11,5	-8,5	-1,3	21,4	—
Barne eskaria	2,3	-9,6	-8,5	-7,4	-2,2	18,9	—
Esportazioak	-0,2	-16,1	-14,3	-13,8	-2,4	30,1	—
Inportazioak	0,0	-15,4	-14,7	-12,5	-1,4	29,8	—
Lehen arloa	5,9	-15,0	-13,0	-28,1	-7,1	7,8	—
Industria eta energia	1,4	-11,2	-8,9	-6,8	-1,1	30,2	—
Eraikuntza	2,4	-8,2	-7,7	-6,5	-2,4	11,5	—
Zerbitzuak	2,5	-9,0	-7,2	-7,7	-3,5	15,5	—
Balio erantsi gordina	2,3	-9,5	-7,7	-7,6	-2,9	18,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	-13,6	-11,8	-12,8	-3,0	20,4	—
Enplegua	1,5	-7,7	-5,8	-5,9	-2,1	16,6	3,2

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021		2021	2022				2022
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	5,5	7,4	6,7	8,8	7,5	5,6	4,0	6,4
Barneko azken kontsumoa	5,8	6,9	6,7	8,1	5,8	5,2	3,8	5,7
Familien kontsumoa	6,8	8,2	7,9	9,9	7,0	6,3	4,4	6,8
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2,7	3,1	2,2	2,0	1,6	1,8	1,9
Kapital eraketa gordina	6,0	8,3	8,0	8,7	9,9	5,3	3,4	6,7
Barne eskariaren ekarpena	6,1	7,5	7,3	8,5	7,1	5,4	3,8	6,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,1	-0,6	0,3	0,4	0,2	0,2	0,3
Lehen arloa	5,9	9,0	3,5	6,9	9,5	-2,5	-6,1	2,3
Industria	6,9	7,6	9,7	7,9	7,1	5,2	2,5	5,6
Eraikuntza	4,1	4,8	4,2	5,0	5,8	3,3	3,9	4,5
Zerbitzuak	5,0	7,5	5,7	9,3	7,9	6,0	4,4	6,8
Balio erantsi gordina	5,3	7,3	6,6	8,7	7,6	5,6	3,8	6,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	7,1	8,5	7,8	10,4	6,0	6,1	5,9	7,0
Lanaldi osoko lanpostuak	3,5	3,8	5,1	4,1	3,2	2,9	2,9	3,3
Landunak (BJA)	2,8	1,9	1,3	1,9	1,0	1,1	0,6	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	Funcas	5,5	—
Hispalink (BEGren aldak.)	6,7	5,3	BBVA	4,6	5,2
Laboral Kutxa	6,3	6,8	CEPREDE	4,2	6,7

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,1	-10,8	-8,7	-8,8	-4,2	17,5	2,7
Kontsumo pribatua	0,9	-12,2	-9,0	-10,1	-6,2	23,4	1,1
Kontsumo publikoa	2,0	3,3	3,6	4,7	3,8	3,9	2,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,5	-9,5	-7,3	-5,7	-2,7	18,8	-0,2
- Aktibo finko materialak	5,8	-10,5	-7,5	-6,3	-2,9	21,2	-1,3
- Eraikuntzan	7,1	-9,6	-7,8	-8,8	-9,6	9,2	-6,2
- Ekipamendu ondasunetan	3,2	-12,9	-7,6	-2,6	8,5	46,8	6,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	-1,5	-4,3	-6,2	-2,8	-1,3	8,4	5,5
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	-8,6	-6,4	-6,5	-3,0	17,3	1,5
Esportazioak	2,5	-20,1	-19,7	-15,3	-7,3	38,9	13,7
Inportazioak	1,2	-15,2	-14,5	-9,5	-3,9	38,4	10,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	4,5	6,0	Intermoney	5,1	6,2
Axesor	4,7	5,9	Mapfre Economics	5,7	6,2
BBVA	5,2	5,5	Oxford Economics	4,4	5,7
CaixaBank	5,0	6,2	Repsol	4,7	5,2
Cámara de Comercio España	4,7	5,5	Santander	4,6	5,8
Cemex	4,7	5,9	Metyis	4,3	5,2
CEEM-URJC	5,3	6,1	Universidad Loyola Andalucía	4,6	5,1
CEPREDE-UAM	5,2	6,7	Consenso (batez bestea)	4,8	5,7
CEOE	4,8	5,0	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	4,7	5,3	Espainiako Bankua (2021-09)	6,3	5,9
FUNCAS	5,1	6,0	Europar Batzordea (2021-11)	4,6	5,5
ICAE-UCM	4,8	6,2	NDF (2021-10)	5,7	6,4
IEE	4,6	4,7	Consensus Forecast (2021-11)	5,0	5,9

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020		2021		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,3	-3,4	-2,9	-2,3	0,5	12,2	4,9
Txina	6,1	2,0	4,9	6,5	18,3	7,9	4,9
Japonia	0,3	-4,6	-5,4	-0,8	-1,3	7,7	1,3
Kanada	1,9	-5,3	-5,1	-3,1	0,3	12,7	3,8
Europar Batasuna	1,8	-5,9	-3,9	-4,1	-1,2	13,7	3,9
Eurogunea	1,6	-6,4	-4,0	-4,4	-1,2	14,2	3,7
Alemania	1,1	-4,6	-3,7	-2,9	-3,0	10,0	2,6
Frantzia	1,8	-7,9	-3,6	-4,3	1,5	18,8	3,3
Erresuma Batua	1,7	-9,7	-8,1	-7,1	-5,8	23,6	6,6
Italia	0,4	-8,9	-5,4	-6,6	-0,7	17,0	3,8
Herbehereak	2,0	-3,8	-2,6	-3,1	-2,3	10,7	5,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2021EKO AZAROA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	5,5	4,0	4,4	3,7	5,4	4,0
Japonia	2,2	3,0	-0,2	0,7	2,8	2,7
Kanada	5,0	4,1	3,3	2,9	7,5	6,2
Europar Batasuna	5,0	4,3	2,4	2,3	—	—
Eurogunea	5,0	4,3	2,4	2,3	7,8	7,5
Alemania	2,7	4,3	3,0	2,5	5,7	5,2
Frantzia	6,5	3,8	1,7	1,8	7,9	7,8
Erresuma Batua	6,9	4,7	2,4	3,7	4,8	4,8
Italia	6,1	4,2	1,8	1,9	9,8	9,5
Espainia	5,0	5,9	2,8	2,3	—	—
Herbehereak	4,2	3,4	2,2	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.